

2017ko PFEZ udalerrien arabera

SARRERA

Udalerrien analisia egiteko orduan, udalerriko egindako PFEZ aitortzen datuen ustiaketa tresna oso baliotsua gertatzen da. Alde batetik, Foru Ogasunari udal bakoitzeko zergadunek egindako ekarpenak zehazten ditu eta, bestetik, PFEZak aitortzera behartuak daudenei buruzko informazio anitza eskaintzen du, bere izaera subjektibo eta pertsonala dela medio. Zergadunen ezaugarri ekonomiko eta fiskal nagusien deskribapen hau oso egokia da Gipuzkoako batez besteko zergadunaren “argazki fiskala” egiteko. Aitorpenak sexuka ere banatu ditugu, eta sexu bakoitzarentzat oinarri likidagarria eta beren batez bestekoa kalkulatu dugu, bi sexuen arteko arrailarekin batera.

Ondoren, Gipuzkoa osorako aitortzen kopurua, oinarri likidagarria eta aitortzeneko oinarri likidagarriaren bilakaera aurkezten ditugu:

Taula 1. Datu esanguratsuenak

	2017	2016	▲ %
Aitortzen kopurua	378.468	375.686	+0,7
Oinarri likidagarria	9.585.626.510	9.135.327.155	+4,9
Oinarri likidagarria aitortzeneko	25.327	24.316	+4,2

Zenbatekoak eurotan

Udalerri, eskualde edo populazio talde baten PFEZaren zenbateko gehienak bere oinarri likidagarriaren balioari lotuta daude. Esaterako, oinarri likidagarriak kuota osoaren eta kuota likidoaren zenbatekoak zehazten ditu. Baina ez hori bakarrik, oinarri likidagarriaren balioak beste zenbait aldagai kualitatiboetan ere zerikusia du. Horrela, oinarri likidagarriaren maila altuago bati banakako aitortzenen proportzio handiago bat dagokio, eta zerikusia du baita kuota osoaren %0,7aren esleipenarekin ere.

Hori guztia kontuan izanda, “UdalGIDA 2017ko PFEZ udalerrien arabera” aldizkariaren datu esanguratsuenak laburbilduko ditugu.

BATEZ BESTEKO OINARRI LIKIDAGARRIA

Batez besteko oinarri likidagarriaren eskualdekako sailkapenean Donostia nabarmentzen da beste guztion gainera, aitorpeneko 30.152 euroekin. Beste muturrean Oarsoaldea daukagu, 20.017 euroko oinarri likidagarriarekin, osatzen duten lau udalerrietatik hiru (Pasaia, Lezo eta Errenteria) oinarri likidagarri txikiena duten 10 udalerrien multzoan baitaude.

Taula 2. Batez besteko oinarri likidagarria (eurotan)

ESKUALDEAK		UDALERRIAK			
		10 handienak		10 txikienak	
DONOSTIA	30.152	ABALTZISKETA	42.117	ERREZIL	19.074
GOIERRI	25.460	DONOSTIA	30.152	PASAIA	19.129
UROLA KOSTA	24.881	ARAMA	30.041	ERRENTERIA	19.509
DEBABARRENA	24.856	GABIRIA	29.930	LIZARTZA	19.551
DEBAGOIENA	24.569	IDIAZABAL	28.782	GAZTELU	19.593
TOLOSALDEA	24.159	HONDARRIBIA	28.131	LEZO	19.972
BIDASOA BEHEA	22.822	ELDUAIN	27.842	LEABURU	20.009
DONOSTIALDEA	21.968	ANTZUOLA	27.821	BIDANIA-GOITZ	20.290
OARSOALDEA	20.017	BEASAIN	27.748	IKAZTEGIETA	20.641
GIPUZKOA	25.327	ORMAIZTEGI	27.746	ZESTOA	20.746

Udalen analisiak, bestalde, turismo-bizitegi diren udalerrien (Hondarribia eta aipatutako Donostia) oinarri likidagarriaren maila altua erakusten du.

Gainontzekoak, gehienbat, udalerrri txikiak dira, zeinetan edozein “aparteko” gertakarik batez bestekoa nabarmenki igotzea ekartzen baitu.

DISPERTSIO INDIZEA

Oinarri likidagarriaren dispertsio indizeak aldagai horren balioak batez bestekoarekiko nola dauden banatuak adierazten digu. Balioak batez bestekotik oso gertu koka daitezke (bai goitik, bai behetik), hau da, kontzentrazio handia dago eta banaketa berdintzaileagoa da. Baina balioak batez bestekotik oso urrun badaude (oso goitik batzuk, oso behetik besteak), orduan balioak oso era desberdinean banatuak daudela esango dugu. Dispertsio maila handi batek zera adierazten du: oinarri likidagarri maila oso altuko zergadunak oinarri likidagarri maila oso baxua dutenekin bizi direla. Gipuzkoa bere osotasunean ikusita, dispertsio maila 0,5648koa izan da (%56,48, irakurketa errazteko).

Taula 3. Dispertsio indizea (%)

ESKUALDEAK		UDALERRIAK			
		10 handienak		10 txikienak	
DONOSTIA	63,00	ABALTZISKETA	98,23	ESKORIATZA	43,17
BIDASOA BEHEA	56,85	BEIZAMA	91,19	ARETXABALETA	43,57
DEBABARRENA	55,42	DONOSTIA	63,00	OÑATI	43,78
UROLA KOSTA	54,33	GAZTELU	61,92	ALTZO	46,08
TOLOSALDEA	53,82	HONDARRIBIA	61,32	OREXA	47,03
GOIERRI	52,30	ARAMA	58,88	LEGAZPI	47,34
OARSOALDEA	51,24	AMEZKETA	58,64	ORENDAIN	47,55
DONOSTIALDEA	50,48	ALTZAGA	58,04	MENDARO	47,56
DEBAGOIENA	47,34	DEBA	57,75	BIDANIA-GOITZ	48,24
GIPUZKOA	56,48	GAINTZA	57,72	ARRASATE	48,36

Eskualdeka aztertuz, Debagoienak berezitasun nabarmena erakusten du, berdintasun eta uniformetasun maila handia duelarik (bere dispertsio maila %47,34koa da) eta, gainera, oinarri likidagarri maila Gipuzkoako batez bestekoaren oso antzekoa delarik. Bestalde, Donostiak, %63,00rekin, batez bestekotik oso urrun dagoen balioa erakusten du, oinarri likidagarriaren banaketa desberdintzaileagoa agertuz.

Udalerri mailan, tamaina txikikoen dispertsio mailaz hitz egiterakoan, lehen azaldutako "aparteko" aldaketa puntualen eragina kontuan eduki behar da, balio bereziak eman baititzakete. Dispertsio maila txikiena duten udalerrien artean Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñati ageri dira, guztiak Debagoiena eskualdekoak, probintziarekin alderatuta bertan oinarri likidagarriaren banaketa berdintzaileagoa dagoela berretsiz.

Taula 4. Dispertsio indizearen bilakaera

Urtea	Dispertsio indizea	
	%	Bariazioa
2010	56,97	
2011	57,15	0,18
2012	56,17	-0,98
2013	57,19	1,02
2014	57,10	-0,09
2015	57,13	0,03
2016	56,72	-0,41
2017	56,48	-0,24

Dispertsio indizea 0,24 puntu jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Azken 8 urteetan gora-behera asko izan ditu, baina puntu portzental bateko tartearen barruan mantendu da, 56,17 eta 57,19 artean.

TASA EFEKTIBOA

Tasa efektiboak Ogasunari egindako diru-sarrerak eta oinarri likidagarria erlazionatzen ditu; adierazten duena da oinarriaren zein portzentaje bihurtzen den sarrera. Gipuzkoa osoko batez besteko tasa efektiboa %18,2 da, hau da, 100 euroko oinarri likidagarri bakoitzetik Ogasunari 18,2 euro ordaindu zaizkio.

Donostiak du tasa efektiborik handiena (%20,4), Gipuzkoako batez bestekoaren oso gainetik. Beste muturrean Oarsoaldea dugu (%15,2), bere batez besteko tasa efektiboa batez besteko orokorretik 3,0 puntu beherago kokatzen delarik. Logikoa denez, hau zuzenean lotuta dago bai eskualdeko batez besteko oinarri likidagarriaren mailarekin (esan bezala, maximoa eta minimoa bi eskualde hauetan aurkitzen dira) eta baita oinarri likidagarri hori nola banatzen den oinarri orokorra eta aurrezpenaren oinarriaren artean ere (bakoitzak bere tarifa propioan tributatzeko du, eta bakoitzak progresibitate maila ezberdina azaltzen du errenta mota bakoitzarentzat).

Taula 5. Tasa efektiboa (%)

ESKUALDEAK	Tasa efektiboa	
	2016	2017
Donostia	20,1	20,4
Debabarrena	17,4	18,1
Urola Kosta	17,4	17,8
Goierri	17,4	17,7
Bidasoa Behea	17,0	17,2
Debagoiena	16,9	17,2
Tolosaldea	16,8	17,3
Donostialdea	15,8	16,1
Oarsoaldea	14,9	15,2
GIPUZKOA	17,8	18,2

Aurreko urtearekin alderatuta, tasa efektiboa handitu egin da, bai Gipuzkoa osoarekiko, eta baita eskualde guztietan ere.

ERRENTA ITURRIAK

Oro har, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak bi zati hartzen ditu kontuan: batetik, zergadunaren sarrerak eta gastuak eta, bestetik, ondarezko ondasunak saltzeagatik izandako galerak eta irabaziak. Zergaren oinarri likidagarria eragiketa honen emaitza da: (etekin positiboak- etekin negatiboak) + (ondare irabaziak-ondare galerak). Hortaz, sarritan gerta daiteke aitorten batek errenta iturri bat baino gehiago izatea.

Hori kontuan, aitortenak errenta iturri nagusiaren arabera sailkatu dira:

- Lanaren aitortenak (lanaren etekina nagusi denean).
- Jardueren aitortenak (jardueren etekinak dira nagusi).
- Kapitalaren aitortenak (kapital higigarri eta higiezinaren etekinak nagusitzen direnean).
- Aitorten mistoak (ez dagoenean errenta iturri nagusirik)

Taula 6. Lanaren aitortenak (%)

ESKUALDEAK		UDALERRIAK	
		Goi marjina	Behe marjina
DEBAGOIENA	90,7	OREXA	92,4
DEBABARRENA	87,9	ARETXABALETA	91,5
GOIERRI	87,8	ESKORIATZA	91,5
DONOSTIALDEA	87,7	ANTZUOLA	91,2
OARSOALDEA	87,4	OÑATI	91,1
TOLOSALDEA	86,5	ARRASATE	90,8
UROLA KOSTA	85,6	MENDARO	90,7
BIDASOA BEHEA	84,6	LEINTZ-GATZAGA	90,4
DONOSTIA	83,9	LEGORRETA	90,1
GIPUZKOA	86,3	IDIAZABAL	90,0
		BEIZAMA	69,3
		ALTZAGA	73,3
		GAZTELU	74,4
		HERNIALDE	77,5
		ABALTZISKETA	79,2
		ERREZIL	79,6
		BELAUNTZA	80,3
		AIA	80,4
		LEABURU	80,7
		ASTEASU	80,9

Lan aitorten proportzioarik altuena Debagoiena, Debabarrena, Goierri, Donostialdea eta Oarsoaldean kokatzen da. Guztietan soldatuen proportzio handia dago.

Taula 7. Jardueren aitortpenak (%)

ESKUALDEAK		UDALERRIAK	
		Goi marjina	Behe marjina
BIDASOA BEHEA	8,4	BEIZAMA	21,3
UROLA KOSTA	8,0	ALTZAGA	17,3
DONOSTIA	7,9	ERREZIL	16,0
OARSOALDEA	7,5	GAZTELU	15,4
DONOSTIALDEA	7,4	AIA	13,6
TOLOSALDEA	7,3	EZKIO-ITSASO	13,5
GOIERRI	7,1	GAINTZA	13,4
DEBABARRENA	6,4	ASTEASU	12,9
DEBAGOIENA	5,3	ABALTZISKETA	12,6
GIPUZKOA	7,4	BELAUNTZA	12,4
		OLABERRIA	4,0
		ARRASATE	4,9
		OÑATI	5,0
		ESKORIATZA	5,1
		ORMAIZTEGI	5,4
		SORALUZE	5,4
		ANTZUOLA	5,5
		LEGORRETA	5,6
		ARETXABALETA	5,6
		IDIAZABAL	5,6

Jardueren aitortpenak, lanekoekin alderantziz erlazionatuak, Bidasoa Behea, Urola Kosta eta Donostian dute proportzioirik handiena. Udalez udal begiratuta, proportzio altuago hori landa udalerriekin dago lotuta.

Taula 8. Kapitalaren aitortpenak (%)

ESKUALDEAK		UDALERRIAK	
		Goi marjina	Behe marjina
DONOSTIA	7,0	HERNIALDE	12,4
BIDASOA BEHEA	5,6	ALTZAGA	9,3
UROLA KOSTA	5,3	IKAZTEGIETA	7,8
TOLOSALDEA	5,2	ABALTZISKETA	7,5
DEBABARRENA	4,6	HONDARRIBIA	7,5
GOIERRI	4,2	BELAUNTZA	7,3
DONOSTIALDEA	3,8	DONOSTIA	7,0
OARSOALDEA	3,8	LARRAUL	6,7
DEBAGOIENA	3,2	ZARAUTZ	6,6
GIPUZKOA	5,1	ZERAIN	6,6
		LEINTZ-GATZAGA	0,9
		BALIARRAIN	1,5
		GAINTZA	1,5
		OREXA	1,5
		EZKIO-ITSASO	2,2
		ARETXABALETA	2,3
		ESKORIATZA	2,4
		ITSASONDO	2,7
		ARAMA	2,8
		MENDARO	2,8

Donostia, Bidasoa Behea, Urola Kosta eta Tolosaldean dago kapital aitortpenen proportzioirik altuena, horiek berak izanik, bestalde, laneko aitortpenen proportzioirik baxuena dutenak. Udalerriak, txikiak nabarmentzen dira.

AITORPENAK MOTAREN ARABERA

Aurkezten diren aitorten gehiengoa familia unitatearen barruan izaten da: %62,2 (%20,6 batera eta %41,7 banaka). Beste %37,8 familia unitatetik kanpo aurkezten da.

Taula 9. Aitorpenak aurkeztutako motaren arabera (%)

FAM.UNIT. SARTU GABE		BATERA		BANAKA	
ESKUALDEA	%	ESKUALDEA	%	ESKUALDEA	%
DONOSTIA	41,2	GOIERRI	24,5	DEBAGOIENA	46,6
TOLOSALDEA	37,5	DONOSTIALDEA	23,7	UROLA KOSTA	42,7
OARSOALDEA	37,3	OARSOALDEA	23,3	DONOSTIA	42,2
DEBABARRENA	37,0	BIDASOA BEHEA	22,5	TOLOSALDEA	41,4
BIDASOA BEHEA	36,8	DEBABARRENA	22,4	DEBABARRENA	40,7
DEBAGOIENA	36,4	UROLA KOSTA	21,7	BIDASOA BEHEA	40,7
DONOSTIALDEA	36,0	TOLOSALDEA	21,1	GOIERRI	40,3
UROLA KOSTA	35,6	DEBAGOIENA	17,0	DONOSTIALDEA	40,2
GOIERRI	35,2	DONOSTIA	16,5	OARSOALDEA	39,4
GIPUZKOA	37,8	GIPUZKOA	20,6	GIPUZKOA	41,7

Eskualdeka nabarmendu daitekeen ezaugarrietako bat da Donostian familia unitatean sartu gabeko aitorten kopuru handia (%41,2) eta bera dela Gipuzkoako batez bestekoa gaitzen duen eskualde bakarra. Batera aurkeztutako aitortenetan, aldiz, ehunetik txikiena du Donostiak (%16,5); eta banaka aurkeztutakoetatik ehunetik handienetakoa (%42,2).

AITORPENAK MODALITATEAREN ARABERA

Aurre-likidazio berretsien jaitsiera orokor bat nabari da eskualde guztietan (Donostialdea, Donostia, Goierri eta Urola Kosta izan ezik), mekanizatuen eta aitorpen telematikoen igoerarekin batera. Aurre-likidazio berretsiena da eskualde guztietan gehien erabilitako modalitatea. Langile autonomoen metaketa handiena duten eskualdeetan (edo soldatuen maila txikiagoa denetan), aurre-likidazio berretsien portzentajea baxuagoa da eta besteean altuagoa, hauek ezin baitute aurre-likidaziorik jaso, ezta aitorpen mekanizaturik egin zuzeneko zenbatespeneko modalitate arrunta erabiltzen dutenak.

Taula 10. Aitorpenak aurkeztutako modalitatearen arabera (%)

ESKUALDEAK	MEKANIZATUAK		BERRETSIAK		TELEMATIKOAK	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
BIDASOA BEHEA	23,9	24,0	49,3	48,0	26,8	28,1
DEBABARRENA	21,9	22,9	58,1	55,7	20,0	21,4
DEBAGOIENA	21,1	21,8	62,1	60,2	16,8	18,0
DONOSTIA	23,9	23,8	47,8	46,9	28,2	29,3
DONOSTIALDEA	24,8	24,5	56,3	55,6	18,9	19,9
GOIERRI	22,8	22,5	59,1	57,9	18,2	19,6
OARSOALDEA	25,5	26,2	55,5	54,0	19,0	19,8
TOLOSALDEA	24,7	25,0	54,2	53,5	21,1	21,5
UROLA KOSTA	21,4	21,0	52,7	52,1	25,9	26,9
GIPUZKOA	23,4	23,6	53,6	52,4	23,0	24,1

AITORPENAK KUOTA OSOAREN %0,7aren ESLEIPENAREN ARABERA

Donostiak du Eliza Katolikoaren alde egindakoen proportziorik altuena, %14,3, eta proportziorik txikiena duena gizarte xedeen aukeran (%48,7) Bidaso behearen atzetik (%48,4).

Taula 11. Aitorpenak kuota osoaren %0,7aren esleipenaren arabera (%)

ZEHAZTU GABE		ELIZA		GIZARTE XEDEAK		ELIZA ETA GIZARTE XEDEAK	
COMARCA	%	COMARCA	%	COMARCA	%	COMARCA	%
BIDASOA BEHEA	30,5	DONOSTIA	14,3	DEBAGOIENA	56,1	UROLA KOSTA	10,1
TOLOSALDEA	30,4	BIDASOA BEHEA	12,9	OARSOALDEA	54,1	DONOSTIA	9,4
OARSOALDEA	30,1	DEBABARRENA	11,9	DONOSTIALDEA	53,3	DEBABARRENA	9,3
DONOSTIALDEA	29,9	UROLA KOSTA	11,6	GOIERRI	52,9	GOIERRI	8,6
UROLA KOSTA	28,5	GOIERRI	10,5	TOLOSALDEA	51,8	BIDASOA BEHEA	8,2
DEBABARRENA	28,1	TOLOSALDEA	10,3	DEBABARRENA	50,7	DONOSTIALDEA	8,0
GOIERRI	27,9	DEBAGOIENA	9,8	UROLA KOSTA	49,9	DEBAGOIENA	7,9
DONOSTIA	27,6	DONOSTIALDEA	8,7	DONOSTIA	48,7	OARSOALDEA	7,6
DEBAGOIENA	26,2	OARSOALDEA	8,1	BIDASOA BEHEA	48,4	TOLOSALDEA	7,5
GIPUZKOA	28,6	GIPUZKOA	11,5	GIPUZKOA	51,2	GIPUZKOA	8,7

EMAKUME ETA GIZONEN BATEZ BESTEKO OINARRI LIKIDAGARRIEN ARTEKO ARRAILA

Emakume eta gizonen arteko arraila era honetara ulertu behar da: gizonezkoen batez besteko biztanleko oinarri likidagarria %100koa bada, zenbat falta zaion emakumezkoen batez besteko biztanleko oinarri likidagarriari bertara iristeko. Horrela, biztanleko batez besteko oinarri likidagarriaren arteko arraila %42,5koa ateratzen da.

Argibide moduan, zera esan behar da: batez besteko oinarri likidagarria biztanleko kalkulatu dugunez, udalerri bakoitzeko populazioaren sexukako egiturak alde baterako edo besterako distorsioak ekar litzake, batez ere aitorpenik aurkezten ez duten populazio taldeetan (haurrak eta adinduak) emakumeen pisua handiagoa den udalerrietan. Hau dela-eta, arraila aitorpeneko batez besteko oinarri likidagarria erabiliz kalkulatzeko dugunean, emaitzak orokorrean emakumeentzat aldekoagoak dira.

Esan beharrik ez dago, arraila zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta berdintasun gehiago dagoela bi sexuen artean.

Taula 12. Emakume eta gizonen batez besteko biztanleko oinarri likidagarrien arteko arraila (%)

ESKUALDEAK		UDALERRIAK			
		Goi marjina		Behe marjina	
GOIERRI	53,4	ABALTZISKETA	85,8	BEIZAMA	12,1
DEBABARRENA	48,6	BERROBI	67,4	OREXA	23,0
DONOSTIALDEA	46,6	OLABERRIA	66,1	LARRAUL	25,0
OARSOALDEA	44,4	LEABURU	65,4	GAZTELU	29,7
TOLOSALDEA	44,3	AMEZKETA	61,4	BELAUNTZA	31,5
UROLA KOSTA	44,3	ERREZIL	61,3	ARETXABALETA	32,0
BIDASOA BEHEA	42,9	ARAMA	59,0	BIDANIA-GOIATZ	36,4
DEBAGOIENA	39,7	BERASTEGI	58,6	DONOSTIA	36,4
DONOSTIA	36,4	LAZKAO	57,9	OÑATI	36,8
GIPUZKOA	42,5	ZUMARRAGA	56,4	ESKORATZA	36,8

Ratiorik txikiena erakusten duten udalerrien artean Beizama nabarmentzen da %12,1ekin, eta handien artean Abaltzisketa (%85,8). Bi kasuetan herri txikiei buruz ari gara, eta ondorioetarako balio ahal izateko denbora tarte handiagoa aztertu beharko litzateke; izan ere, edozein gertaera bakanek urte batetik besterako gorabehera handiak ekar baititzake.

Bestalde, eskualdeka, eta Donostiaren kasua alde batera utzita, nabarmena da Debagoienako datua: bertako udalerri handienak arrail txikienetakoa dutenen artean kokatzen dira, bertako industrializazio mailak emakumeen lan merkaturatzea lagundu duenaren seinale.

Taula 13. Genero arrailaren bilakaera

Urtea	Genero arraila	
	%	Bariazioa
2010	43,4	
2011	43,0	-0,4
2012	43,2	0,2
2013	42,9	-0,3
2014	42,0	-0,9
2015	42,5	0,5
2016	42,7	0,2
2017	42,5	-0,2

Genero arraila 0,2 puntu jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Azken 8 urteetan 42,0 eta 43,4 artean mantendu da.